

Larrun 202

www.argia.eus/larrun



**BAKE PROZESUA
BAI OTE?**

Bake prozesua izateko, kultura politiko berria sustatu behar da

Euskal Herrian ez dago bake prozesurik”, esan berri du Arnaldo Otegia. PPK aste berean, Askatasuna eta Bizikidetzaren lantaldea sortzeko mozioa aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean. Indarkeria “gaitzetsi” gabe, “arbuizatzea” aski zela adierazi zuen Arantza Quiroga. EH Bilduk “abiapuntu egokitzat” jo zuen proposamena. 24 ordu baino ez zuen iraun bake prozesua bideratzeko sendoa zirudien urratsak.

BAKE PROZESUA abiatzeko eta euskal gatazka konpontzeko bi mugarri izan ziren 2011ko urriaren 17an eta 20an. Aieteko Adierazpena eta ETAREN behin betiko su-etena, hurrenez hurren. Lau urte iragan arren, bake prozesu sendo baterako zutabeak ez dira oraindik ezarri. Biktimen eta presoen gaiak ongi lantzea funtsezkoak dira elkarbizitza sustatzeko. Politikak, *stricto sensu*, zeregin horretan lagundu behar luke. Interes politikoen ordea –Espainiako Estatuaren interesak batez ere–, bake prozesua galarazten dute.

LARRUN hau balizko bake prozesuaren egoera ulertzeko egin dugu. Carlos Martín Beristain (Bilbo, 1959), Jon Mirana Landa (Portugalete, 1968) eta Mariano Ferrerrek (Donostia, 1939) lagundu digute zeregin horretan. Hiru elkarrizketetan paratu ditugu euren iritziak. Lehenik baina, hiruekin izandako elkarrizketetatik ateratako aburu batzuk paratu ditugu sarrera gisara.

BIKTIMEI BURUZ: MARTIN BERISTAIN

ETAREN amaiera ez da arazoaren amaiera, eta bere amaiera, besterik gabe, ez da gizarte zauritua sendatzeko nahikoa. Baina, bistan da, biktimek bizi izan duten egoera ezagutaraztea, euren errekonozimendua barne, ez da etorriko denbora bere kasa joaten utziz. Aitzitik, biktimen ezagutzak zenbait baldintza sorrarazi behar ditu –sortzen ari dira– beharrezkoa den bake prozesua bideratzeko. Egoera hori ondu gabe zailagoa izango da aurreratzea. Hau da, gizarte giroa hobetzeko baldintzak bilatu behar dira. Gizarteak berezko energia sorrarazi behar du prozesua garatzeko, osterantzean, oraingo status quo ez da aldatuko, ez irtenbiderik aurkituko. Politika eraikitzailea egin behar da, eta horretarako funtsezkoa da sufrimendua duintzea. Elkartasuneko guneak sortu behar dira dauden hesiak botatzeko, defentsazko memoriak apurtzen laguntzeko.

■ **Egilea: Mikel Asurmendi**

Azala: Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.480. zenbakiarekin banatua, 2015eko urriaren 25ean).



DANI BLANCO

2011ko urriaren 17an ezagutarazi zen Aieteko Adierazpena. Nazioarteko pertsona esanguratsuek indarkeriaren amaiera eta bake prozesua finkatzeko testua irakurri zuten Donostiako Bakearen Etxean.

PRESOEI BURUZ: JON MIRENA LANDA

ETAren indarkeria amaitu da, baina Espainiako Estatuak fenomeno indarrean balego legez jarraitzen du politika egiten. Logikoena Estatuak haxe esatea litzateke: “Fenomeno terrorista bukatu da eta haren aurkako legea ere bai”. Alabaina, arrazoiak arrazoi –estatu arrazoiak–, ez du espetxe politika aldatu nahi, ezta, oro har, gatazkari begirako politika ere. Presoen gaia konplexua da. Euren arazoa ezin bada oraingo egoeran bideratu, beste bide batzuk urratu litezke. Estatuak egungo bide itxitik jarraitzen badu, ezker abertzaleak irtenbideak bilatzen lagundu behar lieke presoei. Ez da erraza aurrera egitea, bistan da, baina presoen egoera hobetzeko jarduera politikoa argitu beharra dago. Euskal gizarteak lider politikoak behar ditu sektore politiko guztietan, nork bere esparru ideologikoa argitzen laguntzeko. Politika berriak ez luke presoa damutzera behartu behar, ezta bide hori hartzen ez duena zigor osoa betetzera behartu ere.

POLITIKAZ: MARIANO FERRER

Mundua zeharo aldatu da azken 50 urteetan, baita ETAren sorrera eragin zuten zirkunstantzia historikoak ere. ETA moduko fenomeno bat sor daitekeela uste duena egungo errealitate politikotik at bizi da. Euskal nazionalismoak frankismoaren ondoren irabazi zuen “sinesgarritasuna” galdu du azken 30 urteetan. Espainiar nazionalismoak “fenomeno terrorista” erabiltzen du politika egiteko, gizartean oraindik ere “beldurra” sorrarazteko. Abertzaleek gizartearen errespetua irabazi behar dute. Arerioek ez diete hori dohainik emanago. Abertzaleek Nafarroan dute desafio hori irabazteko aukera berria. Garaipen politikoak bilatu beharrean, gizartean dauden aurreiritziak desegiteko politika landu beharko luke abertzaletasunak. Oro har, politikariek hauteskunderen biharamunean agertu ohi duten “hemen nago ni” nagusi itxura baztertu behar dute. Kultura politiko berria sustatzeko pedagogia landu gabe, nekez sortuko dira bake prozesua finkatzeko jarduera berriak. ■

Carlos Martin Beristain, Psikologian doktorea: “Biktimen manipulazio politikoa faktore oso kaltegarria da”



Gatazketako biktimen gaietan aditua da. 30 urte daramatza lan horretan. Gleencree ekimenaren sustatzailea da: “Hazia erein da. ETAren, GALen edo torturaren biktimek zerbait salatu badute, biktimen politizazioa eta erabilpena izan da”. Iraganeko Gesto por la paz, Elkarri edo Lokarri bezalako ekimenen hutsunea nabari du gaur egun: “Dinamika berriak behar ditugu, gizarte-espresio berriak izateko”. Gatazkaren konponbidean irtenbide politikoa beharrezkotzat jotzen du, “bortxari, terrorismoari, gatazka armatuari amaiera emateko. Nahi duzun bezala deitu, ez dut lengoaia erabiltzen ezer legitimatzeko”.

Zein parametrotan kokatzen duzu euskal gatazka-
ren izaera? Zein dira ezaugarriak?

Hainbat planotan kokatzen dut. Bat, nazio izaera dela eta, identitatearen planoan. Bi, gatazka politikoa da. Eta bortitza. Ezaugarri bat: gatazkaren inguruko lengoaia polarizazioaren menpe dago. Nik “gatazka” dagoela esaten badut, ETAren jarduera legitimatzen ari naizela dio beste batek. “Terrorismoa” esaten badut, beste batek ETAz ari naizela, baina ez estatu terrorismoaz. Termino bat erabiltzeak determinazio politikoa dauka, leku batean edo bestean jartzen zaitu. Areago, galarazten dizu horretaz hitz egitea, gai hau nola deitzen dugun definitzea.

Uneon, gatazkaren egoera edo “bake prozesua” atipikoa da. Nazioarteko gatazka armatuak aztertzea besterik ez dago. Adibidez, El Salvadorekoa. Han berdinketa militarrek gatazka blokeora eraman du, baina irtenbide politiko bat bilatu dute. Guatemalan berriz, ez zegoen berdinketarik gerrilla garaituta zegoelako. Estatuak garaipen politikoa nahi zuen, prozesua apurtu zen eta konpondu gabe geratu da.

Euskal Herrian derrota militarra bistako da. Estatuak egoera kontrolatuta dauka. Hala ere, ETAren biolentzia bukatzeko izan diren faktoreak ondo aztertu beharko lirateke. Ez dago bakarra: batetik, biolentziaren zentzugabekeria, gizartearen nekea eta irtenbiderik eza daude. Eta aldi berean, bestelako irtenbideak bilatu ordez, Estatuaren aldetik proposamen autoritarioenak gailendu dira.

Zuri zein aspektu interesatzen zaizu gehien gatazka armatuari amaiera emateko unean?

Amaierara eraman dezaketen zirkunstantziak baino, niretzat funtsezkoa da zehaztea prozesuaren legitimotasunean nork irabazten edo nork galtzen duen gehien, biolentziak gizartearen baitan eragin duena sakon aztertzea. Hau da, nola ehuntzen dugun apurtu den gizarte sarea, hainbat biolentzia motak joa izan dena. Horretan nazioarteko esperientziak badu zer erakutsia. Erabili diren bitartekoak, hartu dituzten erronkak, nahiz eta gurea ezberdina izan, beste gatazkek ispiluak dira gure gatazkari buruz ikasteko.

Nola definitzen duzu gatazka eragindako biktima?

Biktimaren definizioa ez da asmatu behar. Giza Eskubideen Nazioarteko Itunean dago. Sufrimendu larriak jasan dituen pertsona da biktima. Horretan sartzen dira giza eskubideen biolazioak, baita abusuak ere. Sarritan estatueta agenteei soilik eginak kontsideratuak izan dira, baina ikuspegi hori gehiago zabaldu behar da. Biktima giza biolazioarekin lotzen dut, gatazka batean beste sufrimenduak ere badaudelako, giza biolazioak ez direnak, eta horiek ezberdindu behar dira. Indarkeria mota oro ez da nahasi behar, denaren nahasketak azkenean erabilia izaten baita politikoki, ondorioei aurre ez egiteko, gertaerak eta ekintzak ez desberdintzeko. Alegia, batzuk torturaren biktimak dira, beste batzuk mehatxuen biktimak, bestetarik hilketen biktimak, desagertutakoen kasuak ere badaude.

Gurean nola ikusten duzu biktimen kasua?

Biktimen kasuan eboluzio bat eman da azken 20 urteetan. Urte horien aurretik, ETaren biktimek ez zuten ezagutzarik –euskal instituzioen aldetik, adibidez–, terrorismoaren biktimaren legea sortu zen arte. 1990eko hamarkadan hasi zen hori aldatzen, bai legalki bai sozialki. Defizit historikoa izan da: biktima isolatua zen, euren egoera are latzagoa izaki. Paradoxikoki, torturaren bikti-

“

Glencree ekimenean, ETaren, GALen edo torturatuen biktimek zerbait salatu bazuten biktimen politizazioa eta erabilpena izan zen”

mek, Batallón Vasco Español edo GALen biktimek errekonozimendu handiagoa izan zuten herrietan, baina era berean, instituzioen errekonozimendurik gabe. Harrez gero, aurreratuz joan da. Halaber, Estatuaren aparatuen biktimen errekonozimendua hasi da, manifestazioetan hildakoak, polizia hilak eta torturatuak.

Torturaren praktikak ukatuak izan dira, giza biolazioaren ezagutza etsaiari ura ematea balitz bezala. Pertsonen logika, logika politiko bortitz horren barruan erori da, giza eskubideen kulturaz arduratu beharrean. Hori, orain, hemen zatika egiten ari da. Beste herrialde batzuetan aldiz, trantsizio politiko baten terminoetan egin da. Aldaketa bat eman denean, diktadura erori edota gatazka armatua amaitu ondoren, hasi dira politika batzuk indarrean jartzen: egiaren komisioa eta erreparaziorako komisioa sortu dituzte, besteak beste. Hemen, tamalez, dena hasi zen modu zati-tuan, kasu batzuk kontuan hartuz eta beste batzuk ukatuz, modu partzialean, biktimen izaera eta beren identitate politikoa nahasten. Ondorioz, batzuei espazio sozial handiagoa eman zaie, ez sufritu duten biolazio motaren arabera, identitate politikoaren arabera baizik. Aldiz, beste batzuek hitz egitea zilegi ote duten zalantzan jarri da. Euskal kasuan manipulazio politikoa faktore oso kaltegarria da. Alternatiba politikoak eraikitzeko biktimen aldeko diskurtsoak izan dira. Glencree ekimenean, ETaren, GALen edo torturatuen biktimek zerbait salatu bazuten hori izan zen, biktimen politizazioa eta erabilpena.



Indar morala landu behar dugu, baina ez besteari arma bezala jaurtikitzeko, autokritika egiteko baizik”

Nola eraiki 50 urteko biolentziaren biktimen ondorengo gizartea, kontuan hartuta, frankismo garaia eta haren ondorengo garaia bizi izan ditugula.

Zaila da eraikitzen, gizarte jarrerak deskonstruitu egin behar direlako. Herritarrek gertatuari buruzko aurreiritziak eraiki dituzte. Izan ere, diskutitu da zer den legitimoa eta zer ez. Biktima mota bati kategoria bat eman zaio, ez sufritu duenaren funtzioan, bere ideologiaren arabera baizik. Halaber, garai demokratiko batean gaude-lako ezin izan da torturaz hitz egin, demokrazian torturatzen ez delakoan, eta biktima horri ez zaio torturatua izan dela errekonozitu. Horiek aurreiritzi sorta itzela sorrarazi dute gizartean. Eta onartezinak dira. Gure lanean egitateak agertu behar ditugu, gertaeren azterketa, biolentzia sufritu dutenengan enfasia jartzen duena, pairatutako biolentziaren injustizian oinarrituta, modu independentean. Diktaduraren kasuan patroia sistematikoa da, eskubide masiboen urraketa izaten da, adierazpen askatasuna galarazten da. Demokrazia garaian, eskubide horiek ezagutuak badira ere –ez dira biolentzia sistematikoaren patroiak, diktaduran bezala–, horrek ez du esan nahi demokrazian bizi garelako ez dela torturatzen. Silogismo horrek fabore eskasa egin dio giza eskubideen lanari eta biktimen errekonozimenduari.

Eztabaida beste nonbait jarri behar da. Giza eskubideen urraketa ez da erregimen politikoa-

ren legitimitatearen edo balorazioa egiten duenaren arabera, demokrazia dagoen edo ez dagoen auzitan jartzen duena. Horrela eginez gero, balorazioa behin betikoa da, eta bien bitartean, biktimen eskubideak bahitzen dira eta arazoari aurre ekiteko egin beharreko politika egin ordez, biktimen sufrimendua erabiltzen da. Tamalez, hori eztabaida politikoaen parte da. Haatik, oinarrizko kontsentsua lortu behar da biktimen errekonozimenduan. Hau da, oinarrizko kontsentsua lortu den giza eskubideen biolentzia kasuetan dokumentazioa ongi landu behar dugu. Hori da minimoa. Gatazkan inplikatuak ez badira gutxienezko puntuetan ados jartzen, ez da inoiz biktimen memoria inkluyente bat izango.

ETAk behin betiko su-etena iragarri zuen aspaldi. Nola eragin du egoera berriak biktimen ezagutzan?

Gizarte giroa hobetu da. Su-etena lagundu du baldintza mugatuetan eta isiltasunean egiten ziren ekimenak agertarazten. Adibidez, Glencree ekimenaren esperientzia ez zen antolatu kontatua izateko, lan egiten genuen taldeetan bizitzeko baino ez zen sortu. 4-5 urteetan egin genituen topaketa horiek, hasteko, bildutakoan artean giro ziur eta egonkorra lortzerik ba ote zegoen esploratzeko. Biktima ezberdinak elkarri entzuteko gauza ote ziren jakiteko, elkarrekiko errekonozimendua aitortzea ba ote zegoen ikusteko. Sufrimendua balioztatzeke espazio sozialak behar ditugu. Sufrimenduaren kausa politiko-soziala da, baina ez da sozialki eta politikoki balioztatua norbaitek errekonozitzen duen arte. Kasu batzuetan auzokoek errekonozitzen dute eta bestetan instituzioek, ordezkari politikoak dute-nek, alegia. Errekonozimendu hori oso inportantea da, sufritu duenari legitimitate marko bat ematen diolako. Bestela ezkututzen da, ez du izate sozialik, nahiz eta euren kausa politiko-soziala izan.

Glencree ekitaldiak oso potenteak izan ziren, baina beti “ez kontatzeko dinamika barruan”

eginak. Biktimek “hau ez dugu kontatuko”, esan zuten hasieran. ETAREN su-eten definitiboa eman zenean, “hau kontatuko dugu. Guk egin dugunak ikasgaia izan behar du beste batzuentzat” esan zuten. Eszenatoki politikoa aldatu gabe ezin izango genukeen esperientzia ezagutzera eman. 3. Glen Cree egin zenean, hirugarren taldea errazago iritsi zen akordioetara aurreko bietan baino, gizarte giroa hobea zelako.

Hazia erein da.

Bai. Kontua da hazia denengana iristea, metaforikoki esanda, haziak jendea eraldatu behar du. Hazi horrek potentzialtasun itzela dauka, bizi indarra, baina faktorea askoren menpe dago. Orain norbaitek behar du ureztatu, jorratu eta zaindu. Osterantzean, esperientzia ona, polita eta egokia izango da, baina hazi-banku batean gertatu da, bertatik atera gabe.

Exageratu gabe, Glen Cree ekimenak errealitatea azaldu du, eszenatoki posible bat agertu du eta esperientzia berriak generatu, eta ez da soilik eragin esparru politikoaren alde batean. Sektore zurrun batzuk kuestionatu ditu, hainbat biktima euren burua ispiluan begiratzera deitu du, diskurtso eraiki bati eragiten dio orain. Baina, kontuz, biktimen elkarte guztiek badute legitimotasun osoa izateko, baita biktimen artatzea beren modura egiteko ere.

Zein izan behar du biktimen rola?

Biktimen rola euren aldeko justizia eta erreparazio eskaerekin batera joan behar du, gertatua eta sufritua berriz gerta ez dadin, gatazkaren eraldatzeko edo biolentzia gainditzeko edozein prozesuan izan ohi den bezala. Horiek horrela, biktima izateagatik arrazoi politikoa izan behar dutela? Ez. Hor planoen nahasketa izan da. Kontuz, torturaren biktima izateak ez dizu legitimotasuna ematen gatazkaren irtenbidea inde-

pendentzia dela esateko, eta ETAREN biktima izateak Espainia zatitu ezina dela esateko ere ez, edo hori kuestionatzen duen inor terrorista dela esateko. Plano ezberdinak daude eta ezin dira nahastu.

Politikariek biktimak erabiltzen al dituzte?

Noski. Biktimen erabilpen politiko azkarra eta maltzurra izan da, sufrimenduaren erabilera politikoa egon da. Gizartearen polarizazioa eragitea arazoari buruzko kontrola irabazi ahal izateko jokabideak oso okerrak izan dira. Hau da, “zu nirekin ez bazaude, nire kontra zaude” delakoa. Bestelako jarrera baldin baduzu, hemen ez dago ortzadarririk, beltza edo zuri dago. Alde batean zaude edo bestean. Oso hesi altuak altxatu ditugu eta orain horiek bota beharra daukagu.

Biktimei bizkarra eman izana leporatu zaio ezker abertzaleari. Ez al zaio beste inori baino gehiago eskatzen biktimen errekonozimenduan?

Baliteke. Baina neurri batean normala da. Sufrimenduaren errekonozimendua beharrezkoa da, eta autokritika ere bai. Hori osasungarria da ezker abertzalearentzat eta denontzat. Baina, autokritika ez da jaurtitzeko arma legez erabili behar. Nik enfasia jartzen dut giza biolazioen eskubideen errekonozimenduan, eta hori eskatu behar zaie ETAREN biktimekiko sentsibilitaterik ez dutenei, torturatuei bizkarra eman diotenei, Estatuaren aparatua baliatu direnei, GALen arduradunei. Izan ere, horien kasuetan errekonozimenduak ezberdinak dira, eta nik ez ditut denak berdindu nahi, baina denek behar dute errekonozimendua, hori beharrezkoa eta osasungarria da. Arazoa da, bakoitzak errekonozimendu hori agertzea ahultasun bat bezala ikusten duela, eta ez indar moral gisan. Nire gomendioa eragile guztientzat hau izaten da: indar morala landu behar dugu, baina ez besteari arma bezala jaurtitzeko, autokritika egiteko baizik. ■

Jon Mirena Landa, Zigor Zuzenbideko katedraduna: “Presoa kontrol ideologikotik askatu behar da”



DANI BLANCO

Zigor zuzenbideko irakaslea da EHU, Leioan. Giza eskubideen legeak ondo baino hobeto ezagutzen ditu. Hona bere berbetatik ateratako lagin bat: “Gatazka armatuaren ondorioz, biktimen aldeko lege-testuek diotena oker interpretatu da, horrek biktima batzuk bereziki babestea ekarri du, jurisprudenzia berezia sortu da. Modu administratiboan zein penalean, babestuak diren bakarrak terrorismoaren biktimak dira. Estatu terrorismoaren biktima batzuk kendu dituzte babes esparruetatik, nolabait”

Zein ezaugarri azpimarratuko zenuke euskal gatazkan?

Nik ezagutu ditudan gatazketan, gutxitan gertatu da biktima politikoen arazoari lehentasuna ematea gatazkaren konponbidea abian jarri aurretik. Normalki, giza eskubideen urraketak gelditzen doazenean hasten da aztertzen nola konpondu biktimen egoera. Hemen, ETArekin biktimei dagokienez, biktimen politika oso sendoa jarri zen 2000. urtean. Biktimek beti merezi dute laguntza, noski, baina biktimen aldeko politikaren barnean kontra-terrorismoa delako politika sartu zen. Nolabait, biktimen aldeko politika batzuk erabili ziren “kontrainsurjentzia” egiteko, horrek diskurtso politikoa markatu du.

Orain, biktimen memoriaren zereginen sartuta gaude, eta badirudi, gainerako guztiak gaintuta daudela. Ez dut esan nahi, sufrimendua pairatzen dutenen aldeko politikarik egin behar ez denik, baina behar baino lehenago sortu zen diskurtso batek zilegi ez den diskurtsoaren zati bat bere egin du. Biktima batzuk era batera tratatuak izan dira eta beste batzuk ez dira aintzat hartu. Batzuetan, memoriaren izenean, giza-eskubide batzuk ez dira ezagutzen, estalita geratzen dira.

Memoria egin behar da, kontua da nola egin.

Hori da. Batzuek gai guztiak alor horretara mugatu nahi dituzte. Errelatoa egitean, oraindik ere gatazka bete-betean bagina bezala ari dira batzuk, sektore batzuek borroka politikoan jarraitzen

dute. Giza eskubideen urraketan azterketak hotza izan behar du, baina azterketa politikoa ere egin behar da. Memoria lantzeko, gertatu den guztia ezagutu behar dugu, hau da, egia, eta egiaren gainean aritzeko giza eskubideen alorrean lan handia egin behar da. Hori ez da ongi egiten ari. Hori egin ondoren, familia politiko bakoitzak egiaren gainean egingo du bere errelato politikoa. ETA-ren biktimen kasuetan lan dezente egin da, poliziak, talde parapolizialak edo torturak eragindakoen kasuetan ez hainbeste.

Torturaren lekukotasuna emateak torturatuen ideia politikoei arrazoia ematea dela dirudi.

Bai. Eta oraindik ez da tortura izan dela aitortu, ez ahalbidetu ere. Barne Ministerioak politika bera jarraitzen du, frankismo garaikoa eta oraingoa antzekoak dira: “Tortura ez da inoiz egon”. Kito. Adibidez, Espainian bide judiziala itxita zegoenez, peritajeen bitarteko saioak egin ziren tortura azalarazteko. 15 zigor inguru eman ziren, gutxi, eta gehienak indultatuak izan ziren. Gaia justizia administrazioan aztertu ez den errealitatea denez, egia azaltzeko mekanismoak eskuetan dituztenek ez dute borondaterik egia agertzeko. Ideala justizia administrazioaren bidean azterketak bideratzea litzateke, ez hainbeste epaiketak egiteko.

Zertarako orduan?

Estatuak tortura izan dela aitortzeko. Torturatuek erreparazio moduko bat eduki behar dute. Konpontzeko modu ezberdinak dira, ordea. Torturatuei dirua ematen badiezu “erreparazio” moduan, aurpegira botatzen dizute. Torturatu batzuek diotenez, eurek ez dute torturatzailak ezagutzeko epaiketa izatea nahi, tortura modu sistematikoz erabili dela aitortzea baizik. Tortura ukatu da, areago, sarritan kereila kriminalak jarri zaizkie tortura salatu dutenei. Estatuak bere logika muturretaraino eramanez du. Aitorpen sinbolikoa falta da. Irlandako Bloody Sunday delakoan bere inplikazioa geroago aitortu zuen Erresuma Batuak. Espainiako Estatuak ere horrela esan



ETAren biktimen kasuetan lan dezente egin da, poliziak, alde parapolizialak edo torturak eragindakoen kasuetan ez hainbeste”

beharko luke: “Tortura zegoela ukatu genuen, baina gezurretan ari ginen. Barkamena eskatzen dugu, eta ez dela berriz gertatuko hitzematzen”.

Estatuek ez dute erraz onartzen hori.

Noski. Barne ministroak terrorismoaren aurkako borrokaren logikan segitzen du. Torturaren kasuan, are zailagoa da. Badirudi, horretan sartuz gero poliziaren lana gutxiesten duzula. Agintariek aditzera ematen digute poliziaren lan zaila ulertu behar dugula. Ordea, horren ondorioz, elkartasun faltsu bat sortu da, korporatiboa, eta zaila da horren kontra egitea. Milaka poliziaren burua bazara, horien konfiantza ez baduzu bereganatzen, indarra darabilte politikoki min egiteko. Politikariek malgutasunez jokatu beharko lukete egoera horri buelta emateko, zeren eta logika horren arabera, Estatuak ez baitu tortura egon dela aitortuko, ez diktaduran ez ondorenean ere. Jendeak badaki torturatu dela, eta politikariek herritarren sinesgarritasuna irabazi behar dute arazoa konpontzeko, baita herritarrak jabetzeko ere, herria bide onetik eramateko gauza direla. Agintariek demokrazia hobea nahi dutela esan bai, baina tortura ukatzen jarraitzen badute, gaizki: “Tortura testuinguru eta neurri horretan gertatu zen eta errealitate horri aurre egin behar diogu”, esan behar dute politikari guztiek.

Egia agertzean, zerbait galtzeko beldurra dago.

Bai, terrorismoa eta kontra-terrorismo borroka egon da 50 urtez. Horien ondorioak hor daude.



Autokritika egin behar da kolektibo politiko osoaren baitan, ez kartzelan soilik. Kolektibo izaera aireratzen hasi behar da kanpotik”

Tortura izan dela ukatzen dutenek, diktadura garaian izan zela onartzen dute, baina Trantsizioan fenomenoak kontrolatzen hasi zela, harik eta desagertu arte. Ezberdindu nahi dituzte diktadura eta demokrazia garaiak. Fenomeno polizial batzuen kasuan ere, “gehiegikeriak” izan zirela diote, baina hainbat jende bahitu edota hil izan zuten. Horiek guztiak 80ko hamarkadan izan ziren eta ikertu barik daude. Batzuek demokrazian izan dela aitortuz gero, errelatoa elikatu egiten dela uste dute. Baina horrek ez du deus justifikatzen, demokrazian tortura dela aitortzen bada ere, horrek ez du justifikatzen inork inork hil dezakeenik, ezta ETAk pertsonak hil izana ere.

Presoak hizpide. Nola ikusten duzu euren egoera?

Biktimen egoera hala nola presoaren egoera, esparru politikoan borrokatu beharra dago. Presoaren dimentsio indibiduala landu behar da batetik, identifikatu behar da egin zuena, baina ez zentzu kolektiboan. Errealitatearen nondik norakoak modu zientifikoan ezagutu behar dira batetik, eta borroka politikoari ekin behar zaio bestetik, presoak egin duen delituaren erantzukizuna ongi argitzeko, lehenik maila indibidualean eta gero maila politiko kolektiboan. Tamalez, dena zaku berean sartu da. Batek tortura aipatzen du eta arerioak kontakizun ideologikoa ikusten du. Tortura ukatzen dutenek ETArek gehiegikeriak eta haren ideologia lotzen dituzte. Horrekin apurtu behar da.

Espainiako Gobernuak presoeri harrera egitea debekatu du. Zer iritzi duzu horretaz?

2000. urteko lege organikoaren bidez sartu zuten apologia delitua, legeak terrorismoaren delitu guztiak aldatu zituen. Apologia egitean ekintza edo pertsona justifikatu daitezke. Goratzen badugu ekintza jakin bat, apologia identifikagarria da nolabait, baina pertsona baten alde egitea apologia al da? Herritar batzuk Auzitegi Nazionalera eraman dituzte “presoen aldeko txalo zaparrada” jo izanaz akusatuta. Presoen alde egiteak ez du esan nahi presoek egindakoaren alde ari direla eta absolbitu dituzte. Baina, orain ez da soilik egitatearen apologia zigortzen, egilearen aldeko apologiaz gain, biktimak umiliatzeagatik zigortu daiteke. Justizia Madrilen zentralizatuta dagoenez, interpretazioak han egiten dira. Horretan jurisprudentzia ez da zuzen ari.

Presoen egoerari irtenbiderik ikusten al diozu?

Espetxe politika gero eta gehiago pozoitu da, salbuespeneko politika erabili delako. Terrorismo kasuetan ez da nahikoa indarkeria bertan behera uztearekin, bestelako betekizunak ere eskatzen zaizkie presoeri, baita hirugarren gradua hartu ahal izateko ere, areago, damutzea eta autoritatearekin elkarlanean jardutea eskatu ere. Presoen egoera gizartean eztabaidatu beharko genuke, espetxe politikan zer den ondo eta zer ez zehazteko. Eztabaida hori ezin da modu hertsagarrian egin, hirugarren graduan dagoen preso bat bakarrik utziz. Hasteko, autokritika egitea ongi litzateke.

Nork egin beharko luke?

Ezker abertzaleak, hasteko. Autokritika ez dugu preso bakoitzaren kasuarekin lotu behar. Estatuak dena poltsa berean sartzen du, preso bakoitzari eskatzen dio, ETARI edo ezker abertzaleari eskatu behar zaion guztia. Ezker abertzaleak presoak kolektibo baten barruan hartzen ditu, eta nire ustez, preso bakoitzari askatasuna eman beharko litzaioke bere ibilbidea askatasunez egiteko. Noski, ez da erraza kolektibo moduan hamarkadetan funtzionatu ostean, orain espetxe politika asumitu behar izatea. Estatuaren umila-

zio tresnek eguneroko kartzela bizitza zailtzen dute. Trenen talka egon daiteke: Estatuaren kontrola eta ETAREN atzean egon daitekeen kolektiboaren kontrola. Talka hori saihestu behar da.

Hori ere ez da erraza izango.

Ez. Preso mota asko dago. Dena den, pentsa dezagun delitu larriak egin dituztenengan. Horiek urte kopuru handia egin dute barruan. Prest baldin badaude etorkizunean indarkeriarik ez dutela erabiliko aitortzeko, hirugarren gradua ahalbidetu litzaieke. Estatuaren eta ezker abertzalearen jarrerak funtsezkoak dira horretan. Sinesgarritasuna irabazteko, presoak kontrol ideologikotik askatu behar da. Presoek ez dituzte pairatu behar politikarien eztabaidak. Eztabaida horiek harrapatuta daude. Gogora dezagun Sortuk legeztatzeke egin zuen bidearekin, presoek kasuarekin asimetria dago. Presoen gaia espetxe esparrutik atera behar da, presoek eredu estandarra eskatu, ez da salbuespenezko eredu estandarra eskatu behar kartzelatik ateratzeko. Presoak modu kolektiboan ari dira borrokatzen, baina, hara, bakoitzak bere iritzia eman dezala erru banaketari buruz. Autokritika egin behar da kolektibo politiko osoaren baitan, eta ez kartzelan soilik. Izaera kolektiboa aireztatzen hasi behar da kaletitik.

Amnistia izan behar dela diote sektore batzuek.

Amnistia egindako delitua ahaztea bada, gertatu dena ezabatzea nahi badugu, bada, ezin da, ez dut uste komeni denik ere. Agian, justizia dosi egokiak bilatzea da komenigarriena. Delitu larrien kasuan ere, 15 urte inguru bete ondoren, bideak ireki daitezke eta kanpoan bete. Ez da zigorra desagertzen, baina presoak hirugarren gradua hartu eta baldintzapeko askatasunean atera daitezke. Hainbat alor blokeatuta daude. Hasteko, sakabanaketak amaitu beharko luke. Estatuak “ez zaituztegu kartzelatik mugituko, ezta dituzuen betekizun guztiak aldatuko” dio, baina hori guztia erabat desproporzionatua da.

Proporzioak bilatu behar dira, baina nola?

450 preso inguru daude uneon, eta aipatu bideak erabiliz gero –zigorrak etxetik hurbilen betetzen eta aipatu lege neurriak aplikatzen–, 100 preso inguru geratu litezke. Egoera ankertu beharrean, zein bide egin daitekeen bilatu beharra daukagu. Estatuak dena terrorismoren poltsan sartzen du eta ezker abertzaleak onartu behar luke bide ezberdinak landu daitezkeela. Horrek ez duela traizioa sustatzen, alegia, “zu ez zara gure taldekoa, uko egin diozulako gure bideari”. Historia oso dramatikoak daude, horrela preso batek bidea bakarka egitea oso zail dauka. Malgutasuna behar da, ez da presoaren mundua politizatu behar, haiek itotzen baitira. Baina, borroka kolektiboa kartzelatik kalera ateratzea lortuko balitz, baita izaera indibiduala eredu estandar arruntetatik bideratuko balitz, mesede handia egingo litzaieke presoek. Urratsak ematen utzi behar zaie presoek. Baina errealista naiz, oso zaila da Estatuak espetxe politika guztiz desegokia ezarri duelako.

Urratsak ari dira ematen, antza denez.

Presoek kolektiboaren [EPPKren] izenean hitz egin dute, dirudenez, baina gero, errealitatean, urrats horiek nola gauzatzen diren... Guk ez dakigu ezer kartzelako bizimoduaz, erabat itxita daude, oso politika gogorren pean, eta horrek ez die mesederik egiten. Preso gogorrenek ez lukete horrenbeste pisu eduki beharko. Presoen gaia askatzeko, daramaten borroka hori laguntzeko. terrorismoari uko egin ondoren, biktimen politika sustatuz batera, ezker abertzaleak ikuspuntu politikoak presoekin partekatu beharko lituzke. Bestalde, Estatuak 15 urte preso daraman pertsona bati ezin dio belaunika dadin eskatu, hori eredu estandar guztien gaintik pasatzen delako. Presoen bidea erraztu ondoren gertatu denaz eztabaidatu behar da, Estatuak eta ezker abertzaleak gaizki egin dutena aztertu. Nik justizia borroka politiko horretan sartzen dut. Politikan denok irabazten dugu, bake eta justizia prozesua garatzen dugun neurrian. ■

Mariano Ferrer, kazetaria. Analista politikoa.

“Ezker abertzaleak herriari azalpen bat zor dio”



DANI BLANCO

Informazio esparrutik kanpo bizi da, baina gure galderei ganoraz erantzun die. Hona euskal gizarteaz daukan ikuspegia: “Ari da sendatzen. Gertatu zaiguna oso gogorra izan da. Ez bakarrik ETA dela eta, baita Guardia Zibila dela eta ere. Denok oso gaizki pasa dugu, batzuek gaizkiago, bizia jokoan izan baitute, eta beste batzuentzat, ikusle bezala, ez hain inbolukratuak, baina drama izugarria bizi izan dugulako. Gatazkak gure bizitzaren parte handia bete du, orain distentsioa behar dugu. Batzuek nahi dute dena ahaztu, beste batzuentzat gatazkaren eboluzioa ez doa ongi. Gizartea pausaldian dago”.

Non kokatzen duzu euskal gatazka?

Nire bizitzan. Beharbada, hori esatea, umiltasun falta da. Baina, hori da ziur dakidana. Bestela, nola erantzun? Noraino joan nahi duzu? Nafarroako historiaino... Non kokatzen dugu zehazki gatazkaren hasiera? Gertatuak, inoiz gertatu behar ez zitezkeen gauzen atalean sartzen ditut. Tamalez, gertatu dira eta eramaten ikasi behar dugu.

Nola ikusten duzu orain euskal gatazka?

Gertatutako guztiak bizi eta eztabaidatu ondoren, nik geratu zaigunaren deskripzioa daukat. Nik gatazka deitzen duguna ETAREN erabakitasunean kokatzen dut. Arazo horri aurre egiteko hainbat modu izan dira, baina niretzat euskal gatazka deitzera iritsi garena, ETAREN ekintza da. Euskal Herriak arazoei aurre egiteko modua baldintzatu duena, baita euskaldunek elkarrekin bizi ahal izateko marko politikoa markatu duena ere.

Komenigarria da hori ongi zehaztea. ETA jaio zen garaian, hainbat euskaldunek –zaila zait kuantifikatzen– herriaren ideia bat zuten, Espainiaren ideia determinatu batekin talka egiten zuena, ideia hori inposatzen zitzaielako. Horren aurka borrokatzea erabaki zuten. Arazoa da, bazeudela beste euskaldun batzuk ere, euren herriaren ideia zutena, eta ez zutela bat egin ETA bilakatzen joan zenarekin. Espainiaren ideiarik

aurre egiteak zapaltzaileen aurkako borroka militarra egitera eraman zituen etakideak. Etsaiaren zirkulua progresiboki zabalduz joan zen, ordea. Ere mu hertsiki militarrean aritzeak ETA bere arlo ideologikoa ixtera eraman zuen. Bere borrokak, borrokatzen zuenaren izaera hartu zuen, ETA ideia determinatu baten inposizio militarra bilakatu zen. Egia da, ETAKoek argudiatu dezakete ez zutela borroka egiten herri konkretu baten ideia inposatzeko, euskaldunek zer izan nahi duten espresatzeko baizik. Baina, prozesuaren bilakaeran –horretan bai izan dela prozesu bat–, beraiek bezala pentsatzen ez zutenen aurka egiten amaitu da ETA.

Zein parametrotan kokatzen duzu gatazka nazioarteko testuinguruan?

Nazioartean gatazka txikia da, ia huskeria. Neurri batean, 11-M delakoak, fenomeno terroristak, ETAREN borroka bere dimentsioan kokatu zuen. Esku artean zer-nolako jostailu geneukan konturatu ginen. Ikaratu ginen. Guk bizi genuenak beste dimentsio bat zeukalako edo har zezakeelako. Errealismo bainu bat izan zen. Gero, beste bainu bat hartzen joan gara gatazka internazionalizatzeko eramandako ekimen guztiekin. Nazioartean hemengo gatazka beti hartu dute Galia herrixkan hartu zuten bezala. Horrek ez du kentzen, gatazkari beste modu batez heldu ez zitzaiokeenik. ETAREkin amaitzeko bitarteko guztiak –hamaika jukutria eta trikimailu– erabili baitira, ETA egotea baliatu dute politikoki.

Zein neurrian erabili du Espainiako Estatuak ETA?

Estatuari ETA komeni izan zaio, subjektu politiko independentea izan nahi duen nazio baten euskal kontzientzia eta identitatea geldiarazteko. Espainiako gobernuak ETA baliatu ahal izan dute batasun nazionalista oztopatzeko, herri batuaren eta geure herriaren ideia politikoa ezinezkoa bihurtzeraino. Guztiz horrela dela? Ezin dut jakin. Baina horrela pentsatu dutela, bai. Gehiago ezin dut esan.



Estatuari ETA komeni izan zaio, subjektu politiko independentea izan nahi duen nazio baten euskal kontzientzia eta identitatea geldiarazteko”

Ba al dago bake prozesurik?

Ez. Ez gaitzen engaina. Badaude saio zintzoak gertatu zaiguna modu onenean buka dadin. Ez dago prozesurik, ez duelako aurrera egiten, teknikoki diot. Bakea lortzeko –egoera honekin bukatzeko, hobe esanda– “euren arteko gatazkan” egon diren parteen artean ez da ezer egin. Gizartea ari da poliki esnatzen. 50 urte luze bizipen traumatikoaren ondoren sosegu-prozesuan dago, gauzak bestera ikusi nahian. Etorkizunari eta bere buruari begira, pentsakor.

Bukatu al daiteke gatazka modu ordenatuan?

Modu ordenatuan bukatzea esateak eta egiteak “lotu gabeko hariak ez daitezen geratu” aditzera eman nahi du, gertatua errepikatu ez dadin. Gobernuari eskatzen zaio modu ordenatuan jardutea. Baina, zoritxarrez, ez du ezer egin, eta gainera egoera baliatzen du giro politikoa endredatzeko politikoki eta ideologikoki. Gobernuari irudi dakiok ETAREN “granoa” sendatzeko onena usteltzen uztea dela. Gizarteari txerto bat bezala aplikatzeko, granoa narda bihurtzeraino. Gizarteak gertatua ez dela errepikatu behar ikas dezan. Politikan gertatzen ari dena herritarrok azter dezagun kausa horien ondorio bezala. Baina, egungo egoera politikoa den bezala izan dadin kalkuluak daude. Estatuak ez du interesik gatazkari amaiera azkarra emateko, ez du nahi ETAREN errekonozimendu moduko inpresioa

“

Ezker abertzaleari nik aurpegiratzen diot –adi, politikoari– konturatu ez izana gertatzen ari zenaz, eta konturatu bazen, ez geldiarazi izana bizi izan dugun nora eza”

gera dadin. Gainera, Estatuak beste nahi bat dauka: ETAREN amaieratik euskal gizartearentzako irakaspen bat eratoritzea. Hori errelato ospetsuaren bidez bideratzen da.

Nola ikusten duzu errelatoa delakoa?

Errelatoa egiteko moduak daude. Errelatoaren teoria determinatu baten arabera, egoera honi eman behar zaion bukaerak oso argi utzi behar du nor diren hiltzaileak eta nor biktimak. Zein diren errudunen betebeharrak eta zein kaltetuen eskubideak. Beraz, errelatoa ezin da egin ETA-ren historiaren alde. Jokabide horrek aurre-plan-teamendu batzuk ezartzen ditu amaitzeko moldean. Teoria horren arabera, ekibokoak sorrarazi ditzaketan errelatoak galarazi behar dira.

Errelato bat baino, errelatoak behar dira.

Noski. Bakoitzak modu batez bizi ditu gertatuak. Balio duen errelato bakarrak bakoitzak egiten duena da. Badaude ordea, kazetaritza hizkuntzaz esana, gertakariak nolabaiteko “*facticidadez*” kontatzea. Ukatu ezinezkoak. Halere, uneon, utopikoak iruditzen zait errelato bat egitea, nor den ona eta nor gaiztoa planteatzen bada. Noiz hasten zara gertatua kontatzen, zein osagai sartzen duzu? Nola kontatzen duzu: zuk nirea eta nik zurea? Dena den, kontatzekotan izan dadila erabakiorra eta enpatikoa denen sufrimendurekin.

Sektore batzuek ezker abertzaleari egozten diote biktimekin enpatiarik ez izatea. Horrela ikusten al duzu zuk?

Nire egia nahi baduzu –galdera ez da samurra–, ezker abertzaleari nik aurpegiratzen diot –ezker abertzale politikoari, adi, politikoari– konturatu ez izana gertatzen ari zenaz, eta konturatu bazen, ez geldiarazi izana bizi izan dugun nora eza. Hau da, diktaduraren aurkako ideiatik –herriaren ideia eta proiektua garatzea oztopatzen duena– herriari berari euren errealitatea ulertzeko era inposatu nahi izatera pasa izana. Euskal gizarteak ETAREN borroka legitimatu ahal izango zuen, baina progresiboki jokatzeko modu horri uko egin zion. Ikaragarria da ezker abertzaleak hori ez hautematea, eta hauteman bazuen ez gelditzea. Ezker abertzaleak herriari azalpen bat zor dio.

Nola ikusten duzu presoaren egoera?

Hasteko garbi gera dadin: presoaren egoera onartezina da, salagarria. Espetxe politikak ez dio batere lagundu ETARI eta ezker abertzaleari eskatu zitzaiekeen eboluzioa izan dadin. Gaia oso konplexua da. Erakunde batek erreduna dela onartzea, ekibokatuta zegoela esatea, ez da bakarrik problematikoa, sinesgarritasun eza eta barne zatiketa eragin ditzake. Arazotsua da, denek ez dutelako ETA fenomeno berdin bizi izan, ez dutelako berdin pentsatzen, eta militantziaren parte bat abandonatuta utzi dezakeelako, euren lengoaiari “ideiarekin gehien konprometitu direnak”. Errazena da, “ETAk desagertu behar du” esatea. Esaiozu 450 preso, hauen lagun, senide eta mila pertsonen kolektiboari: “Hor konpon!”. ETAk eta ezker abertzaleak bitarteko guztiak findu nahi izatea logikoa da ingurune horri dagokion amaierak kalte txikiena izan dezan, baita bere ideia politikoari alboko kalterik ez egiteko. Hori ere ulertu behar dugu, denok. Elkarbitzita finkatzea oso zaila da. Gatazka ideologiko politiko-militarra bukatu behar denean, azken “trukeak” konplikatua dira. Bakea, justizia, inpunitatea eta barkamena mila modutan ulertu daitezke. ■

“DESARMEA OSO EGINKIZUN ZAILA DA, AREAGO ESTATUAK INOLAKO ERRAZTASUNIK EMATEN EZ BADU”

Zer deritzozu ezker abertzalearen aldebakarreko estrategiari? Nola ikusten duzu ekimena gaur egun?

Egokia izan zen, bere garaian. Egoera ikusita, argi zegoen, bestaldekoek oztopoak jarriko zizkiotela. Bateragune auzia, lekuko. Baina, egoera zena izanda ere, ezker abertzaleari hau esatea falta izan zitzaion: “Jaun-andreak, hau beste garai bat da, eta esaten ari garenak ez du zentzurik”. Eta horrek ez du “ni naiz erruduna” esatea nahi. Hasten bagara atzera egiten eta nork piztu zuen sutea argitzen... Kontua da sutea daukagula, eta itzali behar dugula, eta ez daukagu suhiltzailerik laguntzeko. Bateragunekoek sutea itzaltzea erabaki zuten, erretzeko arriskuaz, bistan da. Hasteko, ez baitituzte Estatuak dituen suhiltzaileak –teknikariak, kasurako– hainbat gauza egiteko.

Nola ikusten duzu ETA?

Bestela pentsa dezakeenarekiko errespetu guztiarekin, ETA ez da ezer. Jakina, hau diot, erakundeaz ideiarik izan gabe. Niretzat, ETA arazoa besterik ez da.

Zer iritzi duzu desarmeaz? ETA saiatu da desarmatzen.

Gauzak ikusi behar dira eboluzio batean. ETak badu bere buruari buruzko irudi bat, badu bere egitekoen oihartzunaren ideia bat, bere historian urte askotan egiten zuenak oraindik ere gizartean eragiten duen ustea. Bere ideia da. Baina, gauzak aspaldi aldatu ziren. Adibidez, egin zuen desarme ekitaldia egin orduko gizartea ETaren sinbologiatik oso urrun zegoen. Ekitaldiak “barregura” emango zien batzuei, baina ETakoentzat ziur ez zela horrela izan. Haietzat, akaso, armaren entrega biziki esanguratsua izango zen. Arma multzo hutsala izan arren, libreki, bitartekari batzuen bidez, armak entregatzea transzendentziazko saio bat izango zela. Baina gatazkak eboluzionatu duen moduan ikusita, ekitaldia interpretatzeko kodeak ez dituen ingurunean erori zen, gizarteari, batez ere, grazia egin zion.

Gaia ez da erraza, zeregin zaila da.

Desarmea oso eginkizun zaila da, areago Estatuak inolako erraztasunik ematen ez dituenean. ETak edozein mugimendu egiten duenean neutralizatua izan daiteke, eta politikoki instrumentalizatua. Ez dauka erraza. Eta aldi berean, azken ontziak ez erretzearen aukerari eus-

ten dio nonbait, bukaera modua emankorragoa izan daitekeelakoan. Erakunde militar batentzat oso zaila izan behar du ekimen hori, eta zer esanik ez, erabaki horiek hartu behar dituztenek esperientziarik ez badute, urteetan lanean aritu diren pertsonak ez badira. Ez da IRaren kasua, elkar ulertzeko.

Zer iritzi duzu EAJren jarrerari buruz, bake prozesua dagoen egoera honetan?

Ea... Denbora luzez esan genuen, nik behintzat esan nuen, hau ez zela bukatuko eragile bakoitzak nahi duen eran. Modu batez edo bestez bukatzea, onuragarriagoa izango delako batzuentzat edo besteentzat. Hori erabakigarria izan da gatazkaren bilakaeran, eta orain ere erabakigarria izaten segitzen du. Aieteko Adierazpenaren ondoren, ezker abertzaleak aurrerapauso nabaria eman zuen hauteskundeetan [EH Bilduren emaitzez ari da], orduan, besteek esan zuten: “Azkenean hauek jasoko al dituzte intxaurrak?”. EAJK ez dio erraztasunik emango ezker abertzaleari bake prozesuaren egungo egoeran, haien arteko aurreakordio posibleetara iristeko.

Ezker abertzalea nola ikusten duzu?

Gipuzkoan esaterako, botere politikoa hartu zuenean, ez zuen ulertu gizarteak pausa behar zuela, ez zela unea esateko: “Orain, beste urrats bat aurrera”. Bestela egin behar zuen, adibidez: “Ea, osatu dezagun gizartea”.

Espainiako hauteskundeak datoz, gobernua aldatuko balitz, aukerarik ikusten diozu bake prozesuari?

Ezker abertzaleak nahi izan duen errebindikazio politikoaren bitartez ez dut ikusten. PPri ez zaio interesatzen, ez daki egiten ere. PSOEren aldetik ezer gutxi espero dut, edo batere ez. Gai horretan koldarra delako. Ikusi du PPri politika modu batez edo bestez egiteak ez diola kostu politikorik ekartzen, beraz, gobernatzera iritsi bitartean, ezer ez. Gobernura itzultzea ez dut ikusten orain, eta iritsi bitartean ez da batere mugituko. Podemos-en kasuan ezin dugu ere oraingoz ezer espero. Arazoa oso handi datorkio. Espainiako Podemosi buruz ari naiz, hemen egon daiteke Podemoseko bat edo beste, bestelako jarrera batean. Agian, Estatuaren eredu alda dezakete, baina ETaren gaia eta euskal gatazka handiegia da eurentzat.

Argia 2016ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz jazteko

EGURREZKO
TAULA

50€

egutegia opari

Historia gaiak
Hitzokeiak
Etixerako gomendioak
Zientzia
Baratzea
Errezetak
Efemerideak
Santuak
Euskal izendegia
Eguzkia, ilargia eta mareak

2016
egutegia

Argia

2016
egutegia

EGUTEGIA

9€

Eskaerak:

www.argia.eus/denda · denda@argia.eus · ☎ 943 371 545